# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

# Boletín Oficial de Gipuzkoa

2006ko maiatzak 4 osteguna — Jueves 4 de mayo de 2006

83 Zenbakia — Número 83


## LABURPENA — SUMARIO


| | Orrialdea | | Página |
|---|---|---|---|
| 4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa | 10.093 | 4 Administración del T.H. de Gipuzkoa | 10.093 |
| 5 Estatuko Administrazioa | 10.107 | 5 Administración del Estado | 10.107 |
| 6 Autonomia Erkidegoko Administrazioa | 10.109 | 6 Administración de la Comunidad Autónoma | 10.109 |
| 7 Udal Administrazioa | 10.110 | 7 Administración Municipal | 10.110 |
| 8 Justizia Administrazioa | 10.218 | 8 Administración de Justicia | 10.218 |
| 9 Iragarkiak | 10.219 | 9 Anuncios | 10.219 |


## 4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 4

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### BIDE AZPIEGITURETARAKO DEPARTAMENTUA

**Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia**

*Kalteen erantzunkizunagatik irekitako espedienteak, interesatuei zuzenean jakinarazterik izan ez direnak.*

1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59.5 artikuluan dioena betez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideetako elementuei kalteak eragiteagatik irekitako erantzukizun espedienteen zerrenda argitaratzen dugu hemen, interesatuei entzuteko epearen berri emanez bidalitako idatzia helaraztea ezinezkoa izan delako.

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO PARA LAS INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

**Dirección General de Gestión y Planificación**

*Relación de expedientes de responsabilidad por daños que no han podido notificarse personalmente a los interesados.*

De conformidad con lo dispuesto en el art. 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se procede a la publicación de la relación de expedientes de responsabilidad por daños causados en elementos de las carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa y cuyos escritos de audiencia al interesado no han podido notificarse.

| *Espedientea* *Expediente* | *Data* *Fecha* | *Arduraduna* *Responsable* | *Lekua* *Lugar* | *Balorazioa (€)* *Valoración (€)* |
|---|---|---|---|---|
| DAÑ-06/0192 | 10/03/06 | OSES RUIZ DE AZUA, IÑAKI | GI-632 | 2.280,78 |
| DAÑ-06/0231 | 22/03/06 | VALGAÑON BILBAO, SABINA | GI-631 | 44,53 |

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

Aipatu diren espedienteak jakinarazitzat joko ditugu eta, 1994ko azaroaren 25eko 17/94 Foru Arauak, Gipuzkoako Errepide eta Bideenak, 51. eta 52. artikuluetan xedatzen duena aplikatuz interesatuei dagokien erantzukizuna eskatu ahal izango diegu. Bide batez ohartarazten diegu hamar eguneko epea dutela Bide Azpiegituretarako Departamentuan, eta idatziz, bere defentsarako komenigarri iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta, egoki baderitzote, frogak aurkeztu edo proposatzeko.

Donostia, 2006ko apirilaren 24a.—Elixabete Martinez Iruretagoiena, idazkari teknikoa.

(4506) (4552)

Los expedientes de referencia, que en aplicación de lo dispuesto en los art. 51 y 52 de la N.F. 17/1994, de 25 de noviembre, de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, podrán dar lugar a la exigencia de la responsabilidad correspondiente, se dan por notificados, haciéndose saber el derecho que asiste a los interesados de alegar por escrito ante este Departamento para las Infraestructuras Viarias en el plazo de diez días cuanto estimen conveniente en su defensa, con aportación o proposición en su caso de las pruebas que considere oportunas.

Donostia-San Sebastián, a 24 de abril de 2006.—La secretaria técnica, Elixabete Martinez Iruretagoiena.

(4506) (4552)

## Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia

*Kalteen erantzukizunagatik irekitako espedienteak, interesatuei zuzenean jakinarazterik izan ez direnak.*

1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59.5 artikuluan dioena betez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideetako elementuei kalteak eragiteagatik irekitako erantzukizun espedienteetako ebazpenen zerrenda argitaratzen dugu hemen, interesatuei jakinaraztea ezinezkoa izan delako.

## Dirección General de Gestión y Planificación

*Relación de expedientes de responsabilidad por daños que no han podido notificarse personalmente a los interesados.*

De conformidad con lo dispuesto en el art. 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común se procede a la publicación de la relación de Resoluciones relativas a expedientes de responsabilidad por daños causados en elementos de las carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa y que no han podido notificarse a los interesados.

| *Espedientea Expediente* | *Ebaz. zk Res. nº* | *Data Fecha* | *Arduraduna Responsable* | *Lekua Lugar* | *Balorazioa (€) Valoración (€)* |
|---|---|---|---|---|---|
| DAÑ-05/1666 | 06/0640 | 17/03/06 | MARTINEZ JIMENZ, JUAN | N-I | 1.108,73 |
| DAÑ-05/1707 | 06/0317 | 16/02/06 | BARRO LOPEZ, EVA MARIA | N-I | 672,60 |
| DAÑ-05/1817 | 06/0404 | 21/02/06 | SANCHEZ OCAÑA MARTIN, Mª ASCENSION | N-I | 1.589,10 |
| DAÑ-05/1885 | 06/0396 | 21/02/06 | PINTADO ARRAIZ, JOSE FRANCISCO | N-I | 9.500,42 |

Aipatutako ebaspenak ez dio amaiera ematen administrazio bideari eta interesatuek berorien aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Bide Azpiegituretarako Departamentuko foru diputatuari, argitarapenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egoki eritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Zerrendan ageri den balorazioko zenbatekoa ordaintzeko hamabost eguneko epea dago, ebazpena administrazio bidean irmoa denetik kontatzen hasita, eta hala egiten ez bada, premiamendu bidez kobratuko da dagokion errekargu eta guzti.

Donostia, 2006ko apirilaren 24a.—Elixabete Martinez Iruretagoiena, idazkari teknikoa.

(4514) (4553)

Las Resoluciones de referencia, no ponen fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra las mismas recurso de alzada ante el Ilmo.Sr. Diputado Foral del Departamento para las Infraestructuras Viarias en el plazo máximo de un mes contando a partir del día siguiente al de esta publicación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

El importe de la valoración señalada deberá abonarse en un plazo no superior a quince días una vez resulte firme en vía administrativa la corespondiente Resolución, y, de no hacerse efectivo en dicho plazo, se procederá a su cobro en vía de apremio con los recargos que procedan.

Donostia-San Sebastián, a 24 de abril de 2006.—La secretaria técnica, Elixabete Martinez Iruretagoiena.

(4514) (4553)

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

## GARAPEN IRAUNKORRERAKO DEPARTAMENTUA

### Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia

*Onartzea erabiltzen ez diren antaparetako jarduketak egiteko hurrengo proiektuak: Goiako antaparako arrapala mailakatua (Segura) (5-RR-3/06), Orkliko antaparako arrapala mailakatua (Ordizia) (5-RR-4/06), Bionako antaparako arrapala mailakatua (Zaldibia) (5-RR-5/06) eta Oriko-errotako antaparako arrapala mailakatua (Idiazabal) (5-RR-6/06).*

Diputatuen Kontseiluak, 2006ko apirilaren 25eko bileran, ondoren argitaratzen den Erabakia hartu zuen:

«Gipuzkoako ibaien biziberritze ekologikoagatik Garapen Iraunkorrerako Departamentua egiten ari den lanetan, ibaietako habitata bere onera ekartzeko helburuarekin arrain espezieen migrazio mugimenduetarako oztopo diren elementuak kentzen ari da. Ildo horretan, Gipuzkoako ibaietan erabiltzen ez diren antaparetan zenbait jarduketa egitea planifikatu da.

Hori dela eta, Foru Aldundiaren enkarguz Girder Ingenieros, SL enpresak idatzitako proiektu multzo bat hautatu dugu, arrainentzako arrapala mailakatuak eta harri-lubeta eraikitzeko, Oria ibaian eta horren ibaiadarrean, Amundarain errekan.

Garapen Iraunkorrerako foru diputatuak 2006ko otsailaren 1ean emandako 9-OH/06 Foru Aginduaren bidez, proiektuei onarpen teknikoa eta behin-behinekoa eman zitzaien, eta ikusgai jarri dira jendaurrean, nahitaez hartu beharreko ondasun eta eskubideen banakako zerrendekin batera, legeak agintzen duen moduan eta epeen barruan.

Jendearen aurreko informazio garaian ez da jaso proiektuaren herri onurako izaera zalantzan jartzen duen alegaziorik, ezta atxikitako ondasunak hartu beharraren aurka doanik ere.

Horregatik, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren eta Garapen Iraunkorrerako Departamentuko foru diputatuak proposatuta,

ERABAKITZEN DU

*Lehen:* Behin betiko onartzea erabiltzen ez diren antaparetako jarduketak egiteko hurrengo proiektuak, eta horien herri onuragarritasuna aitortzea:

— Goiako antaparako arrapala mailakatua egiteko proiektua (Segura) (5-RR-3/06).

— Orkliko antaparako arrapala mailakatua egiteko proiektua (Ordizia) (5-RR-4/06).

— Bionako antaparako arrapala mailakatua egiteko proiektua (Zaldibia) (5-RR-5/06).

— Oriko-Errotako antaparako arrapala mailakatua egiteko proiektua (Idiazabal) (5-RR-6/06).

*Bigarren:* Aitortzea erasandako ondasun eta eskubideak okupatu beharra, eranskinean azaltzen direnak hain zuzen.

*Hirugarren:* Eusko Jaurlaritzari obren premia adieraz dezan eskatzea, Derrigorrezko Desjabetzari buruzko Legearen 52. artikuluak xedatzen duenaren ondorioetarako, aldi berean abiariaziz aipatutako finken balio justua finkatzeko tramiteak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

## DEPARTAMENTO PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE

### Dirección General de Obras Hidráulicas

*Aprobación de los siguientes proyectos de intervención en azudes fuera de uso: Rampa escalonada del azud de Goia (Segura) (5-RR-3/06), rampa escalonada del azud de Orkli (Ordizia) (5-RR-4/06), rampa escalonada del azud de Biona (Zaldibia) (5-RR-5/06) y rampa escalonada del azud de Oriko-errota (Idiazabal) (5-RR-6/06).*

El Consejo de Diputados, en sesión de fecha 25 de abril de 2006, adoptó el Acuerdo que a continuación se publica:

«A fin de continuar las actuaciones del Departamento para el Desarrollo Sostenible en materia de recuperación ecológica de los ríos del Territorio Histórico, procurando una recuperación del hábitat fluvial mediante la remoción de aquellos elementos que suponen un obstáculo para los movimientos migratorios de las especies piscícolas, se ha planificado un conjunto de actuaciones a desarrollar en los azudes fuera de uso de los ríos del Territorio Histórico.

A tal efecto, se ha seleccionado un conjunto de proyectos, redactados por Girder Ingenieros, S.L. por encargo de esta Diputación Foral, para la construcción de rampas escalonadas y de escollera, aptas para la subida de los peces en el río Oria y en su afluente, el río Amundarain.

Estos proyectos de obras han sido ya aprobados técnica y provisionalmente mediante Orden Foral n.º 9-OH/06, de 1 de febrero de 2006, del Diputado Foral para el Desarrollo Sostenible, habiendo sido sometidos a información pública, junto con sus relaciones individualizadas de bienes y derechos de necesaria ocupación, en la forma y plazos previstos por la Ley.

Durante dicho plazo de información pública no se ha presentado alegación alguna que cuestione ni la utilidad pública del proyecto ni la necesidad de ocupación de los bienes afectados.

En consecuencia, este Consejo de Diputados, previa deliberación y a propuesta del Diputado Foral del Departamento para el Desarrollo Sostenible,

ACUERDA

*Primero:* Aprobar definitivamente los siguientes proyectos de intervenciones en azudes fuera de uso, declarando su utilidad pública:

— Proyecto de rampa escalonada del azud de Goia (Segura) (5-RR-03/06).

— Proyecto de rampa escalonada del azud de Orkli (Ordizia) (5-RR-04/06).

— Proyecto de rampa escalonada del azud de Biona (Zaldibia) (5-RR-5/06).

— Proyecto de rampa escalonada del azud de Oriko – Errota (Idiazabal) (5-RR-6/06).

*Segundo:* Declarar la necesidad de ocupación de los bienes y derechos afectados y que son los que figuran en el anexo adjunto.

*Tercero:* Solicitar al Gobierno Vasco la declaración de urgencia de las obras, a los efectos de lo dispuesto en el Art. 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, iniciando al mismo tiempo los trámites de determinación del justiprecio de las citadas fincas.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

Hala ere partikularrak, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Donostia, 2006ko apirilaren 27a.—Juan José de Pedro Alonso, idazkari teknikoa.

(1469) (4555)

*Eraskina: Erabiltzen ez diren antaparetako jarduketak egiteko proiektuek erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda.*

*Goiako antaparako arrapala mailakatua egiteko (Segura) Proiektua (5-RR-3/2006).*

SEGURAKO UDALERRIA

*— Lurzati zk. 002*

*Jabea:* Telleria Alkorta, Juan.

*Helbidea:* Nagusia, 16. 20214 Segura.

*Aldi baterako lur-hartzea:* 153,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, Segurako Udala; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, Etxezarreta; Mendebaldean, finkaren gainerakoa.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 1. Lurzatia: 169.

*— Lurzati zk. 004*

*Jabea:* Etxezarreta Goya, Pedro M.ª eta Anaiak.

*Helbidea:* C.º Urnagusi. 20214 Segura.

*Aldi baterako lur-hartzea:* 450,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, Segurako Udala; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, ibaia; Mendebaldean, Telleria.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 1. Lurzatia: 170.

*— Lurzati zk. 005*

*Jabea:* Telleria Albizu, M.ª Gurutze.

*Helbidea:* C.º San Andres. 20214 Segura.

*Aldi baterako lur-hartzea:* 61,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, ibaia; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, finkaren gainerakoa; Mendebaldean, ibaia.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 1. Lurzatia: 173.

*Orkliko antaparako arrapala mailakatua egiteko (Ordizia) Proiektua (5-RR-4/2006).*

ORDIZIAKO UDALERRIA

*— Lurzati zk. 002*

*Jabea:* Orkli, S. Coop. Ltda.

*Helbidea:* Ctra. Zaldibia, s/n. Apdo. 62. 20240 Ordizia.

*Aldi baterako lur-hartzea:* 242,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, ibaia; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, Balerdi; Mendebaldean, finkaren gainerakoa.

*Katastroko izaera:* Hirilurra. Poligonoa: 12-12. Lurzatia: A10.

No obstante los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

Donostia-San Sebastián, a 27 de abril de 2006.—El secretario técnico, Juan José de Pedro Alonso

(1469) (4555)

*Anexo: Relación de bienes y derechos afectados por los proyectos de intervenciones en azudes fuera de uso.*

*Proyecto de rampa escalonada del azud de Goia (Segura) (5-RR-3/2006).*

TERMINO MUNICIPAL DE SEGURA

*— Parcela n.º 002*

*Propietario:* Telleria Alkorta, Juan.

*Domicilio:* Nagusia, 16. 20214 Segura.

*Ocupación Temporal:* 153,00 m².

*Linderos:* Norte, Ayuntamiento de Segura; Sur, resto de finca; Este, Etxezarreta; Oeste, resto de finca.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 1. Parcela: 169.

*— Parcela n.º 004*

*Propietario:* Etxezarreta Goya, Pedro M.ª y Hnos.

*Domicilio:* C.º Urnagusi. 20214 Segura.

*Ocupación Temporal:* 450,00 m².

*Linderos:* Norte, Ayuntamiento de Segura; Sur, resto de finca; Este, río; Oeste, Telleria.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 1. Parcela: 170.

*— Parcela n.º 005*

*Propietario:* Telleria Albizu, M.ª Gurutze.

*Domicilio:* C.º San Andres. 20214 Segura.

*Ocupación Temporal:* 61,00 m².

*Linderos:* Norte, río; Sur, resto de finca; Este, resto de finca; Oeste, río.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 1. Parcela: 173.

*Proyecto de rampa escalonada del azud de Orkli (Ordizia) (5-RR-4/2006).*

TERMINO MUNICIPAL DE ORDIZIA

*— Parcela n.º 002*

*Propietario:* Orkli, S. Coop. Ltda.

*Domicilio:* Ctra. Zaldibia, s/n. Apdo. 62. 20240 Ordizia.

*Ocupación Temporal:* 242,00 m².

*Linderos:* Norte, río; Sur, resto de finca; Este, Balerdi; Oeste, resto de finca.

*Naturaleza Catastral:* Urbana. Polígono: 12-12. Parcela: A10.

*Bionako antaparako arrapala mailakatua egiteko (Zaldibia) Proiektua (5-RR-5/2006).*

ZALDIBIAKO UDALERRIA

*— Lurzati zk. 002*

*Jabea:* Azurmendi Altuna, Pedro.

*Helbidea:* C.º Bertuesa, 16-1.º B. B.º Elbarrena. 20247 Zaldibia.

*Aldi baterako lur-hartzea:* 395,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, Logos S.C.R.L.; Hegoaldean, Mugica-Imaz; Ekialdean, ibaia; Mendebaldean, errepidea.

*Katastroko izaera:* Hirilurra. Poligonoa: 0408. Lurzatia: 010.

*Oriko-errotako antaparako arrapala mailakatua egiteko (Idiazabal) Proiektua (5-RR-6/2006).*

IDIAZABALGO UDALERRIA

*— Lurzati zk. 001*

*Jabea:* Mintegi Santesteban, Luis.

*Helbidea:* C.º Mandiolatza, 44. 20213 Idiazabal.

*Desjabetzapena:* 122,00 m².

*Aldi baterako lur-hartzea:* 102,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, finkaren gainerakoa; Hegoaldean, ibaia; Ekialdean, Elorza; Mendebaldean, finkaren gainerakoa.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 14. Lurzatia: 68.

*— Lurzati zk. 002*

*Jabea:* Elorza Eskisabel, M.ª Teresa.

*Helbidea:* C.º Mendiolatza, 44. 20213 Idiazabal.

*Desjabetzapena:* 10,00 m².

*Aldi baterako lur-hartzea:* 421,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, finkaren gainerakoa; Hegoaldean, ibaia; Ekialdean, finkaren gainerakoa; Mendebaldean, Mintegi.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 14. Lurzatia: 69.

*— Lurzati zk. 004*

*Jabea:* Ruiz de Arcaute Alustiza, Isabel.

*Helbidea:* Hernani, 25-1.º 20004 Donostia.

*Desjabetzapena:* 81,00 m².

*Aldi baterako lur-hartzea:* 896,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, ibaia; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, Irizar; Mendebaldean, finkaren gainerakoa.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 14. Lurzatia: 158.

*— Lurzati zk. 004ARR*

*Jabea:* Agirrezabala Irastorza, Ignacia.

*Helbidea:* C.º Oria-errota. Diseminado rural, 52. 20213 Idiazabal.

*Desjabetzapena:* 81,00 m².

*Aldi baterako lur-hartzea:* 896,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, ibaia; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, Irizar; Mendebaldean, finkaren gainerakoa.

*Katastroko izaera:* Landalurra. Poligonoa: 14. Lurzatia: 158.

*— Lurzati zk. 006*

*Jabea:* Gipuzkoako Foru Aldundia.

*Helbidea:* Gipuzkoako plaza, z/g. 20004 Donostia.

*Aldi baterako lur-hartzea:* 64,00 m².

*Mugak:* Iparraldean, Ruiz de Arcaute; Hegoaldean, finkaren gainerakoa; Ekialdean, finkaren gainerakoa; Mendebaldean, finkaren gainerakoa.

*Katastroko izaera:* Errepidea.

*Proyecto de rampa escalonada del azud de Biona (Zaldibia) (5-RR-5/2006).*

TERMINO MUNICIPAL DE ZALDIBIA

*— Parcela n.º 002*

*Propietario:* Azurmendi Altuna, Pedro.

*Domicilio:* C.º Bertuesa, 16-1.º B. B.º Elbarrena. 20247 Zaldibia.

*Ocupación Temporal:* 395,00 m².

*Linderos:* Norte, Logos S.C.R.L.; Sur, Mugica-Imaz; Este, río; Oeste, carretera.

*Naturaleza Catastral:* Urbana. Polígono: 0408. Parcela: 010.

*Proyecto de rampa escalonada del azud de Oriko-Errota (Idiazabal) (5-RR-6/2006).*

TERMINO MUNICIPAL DE IDIAZABAL

*— Parcela n.º 001*

*Propietario:* Mintegi Santesteban, Luis.

*Domicilio:* C.º Mandiolatza, 44. 20213 Idiazabal.

*Expropiación:* 122,00 m².

*Ocupación Temporal:* 102,00 m².

*Linderos:* Norte, resto de finca; Sur, río; Este, Elorza; Oeste, resto de finca.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 14. Parcela: 68.

*— Parcela n.º 002*

*Propietario:* Elorza Eskisabel, M.ª Teresa.

*Domicilio:* C.º Mendiolatza, 44. 20213 Idiazabal.

*Expropiación:* 10,00 m².

*Ocupación Temporal:* 421,00 m².

*Linderos:* Norte, resto de finca; Sur, río; Este, resto de finca; Oeste, Mintegi.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 14. Parcela: 69.

*— Parcela n.º 004*

*Propietario:* Ruiz de Arcaute Alustiza, Isabel.

*Domicilio:* Hernani, 25-1.º 20004 Donostia-San Sebastián.

*Expropiación:* 81,00 m².

*Ocupación Temporal:* 896,00 m².

*Linderos:* Norte, río; Sur, resto de finca; Este, Irizar; Oeste, resto de finca.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 14. Parcela: 158.

*— Parcela n.º 004ARR*

*Propietario:* Agirrezabala Irastorza, Ignacia.

*Domicilio:* C.º Oria-errota. Diseminado rural, 52. 20213 Idiazabal.

*Expropiación:* 81,00 m².

*Ocupación Temporal:* 896,00 m².

*Linderos:* Norte, río; Sur, resto de finca; Este, Irizar; Oeste, resto de finca.

*Naturaleza Catastral:* Rústica. Polígono: 14. Parcela: 158.

*— Parcela n.º 006*

*Propietario:* Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Domicilio:* Plaza Gipuzkoa, s/n. 20004 Donostia-San Sebastián.

*Ocupación Temporal:* 64,00 m².

*Linderos:* Norte, Ruiz de Arcaute; Sur, resto de finca; Este, resto de finca; Oeste, resto de finca.

*Naturaleza Catastral:* Carretera.

## Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

*Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren eta Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofizialaren arteko Lankidetza Hitzarmena.*

Diputatuen Kontseiluak, 2006ko apirilaren 25eko bileran, ondoren argitaratzen den Erabakia hartu zuen:

«*Lehenengo:* Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren bitartez, eta Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofizialak sinatuko duten Lankidetza Hitzarmena, hondakinen prebentzio eta kudeaketa alorrean, batez ere, informazio, prestakuntza, dibulgazio, parte hartze eta heziketa ekintzak enpresaren munduan bultzatzeko finantzaketa baldintzak arautuko dituena. Hitzarmenaren testua erabaki honen eranskinean jasota dago.

*Bigarren:* Ematea Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofizialari hirurogeita hamabost mila (75.000,00) euroko diru laguntza aurrekontuko 1.0520.210.481.-00.04.2006 kontu-sailaren kargura.

*Hirugarren:* Baimena ematea Garapen Iraunkorrerako Foru Diputatuari Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta zuzen bete dadin komeni den guztia egin, erabaki eta ebazteko.

*Laugarren:* Agindua ematea hitzarmena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin».

ERANSKINA

Alde batetik, Luis M.ª Oyarbide Arizmendi jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuko foru diputatua.

Eta bestetik, Agustin Eizaguirre Agote jauna, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofizialeko zuzendari nagusia (hemendik aurrera Gipuzkoako Ganbera), Tolosa hiribidea, 75, 20018 Donostian bizi dena, eta Q2073001F zk.ko IFZ duena.

Bi alderdiek legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri ordezkatzen dituzten entitateen artean lankidetza hitzarmen hau sinatzeko, eta ondoko azalpenak eman dituzte:

AZALTZEN DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorra (labur: Gipuzkoako Hondakin Plana) onartu zuen 2002ko abenduaren 17an, gizartearen eta erakundeen artean parte hartze eta adoste prozesu zabal eta bizia izan ondoren.

Gipuzkoako Hondakin Planak jasotzen dituen helburuen artean hondakinen alorreko prebentzioa dago, hau da, hondakin gutxiago sortzea eta sortutakoak berrerabiltzea, horrek ekarriko baitu azkenerako sortutako hondakinen pisuaren gehikuntza txikitzea (aurreikusita dago gehikuntza tasa %90 gutxitzea), Gipuzkoan sortutako hiri hondakin guztien %37,1 birziklatzea eta %4 konpostajean erabiltzea, 2016rako. Kontuan hartuta enpresek sortzen dituzten hondakinen zati bat hiri hondakin gisa har daitekeela, Gipuzkoako Foru Aldundiak komenigarritzat jotzen du gaiarekin zerikusia duten alderdi guztien laguntza eta lankidetza izatea.

Bestalde, Gipuzkoako Ganbera 1993ko martxoaren 22ko 3/1993 Legeak xedatutakoaren arabera arautzen den Merkataritza Ganbera Ofiziala da eta Lurralde Historikoko enpresen garapen ekonomikoa bultzatu eta Merkataritza, Industria eta

## Dirección General de Medio Ambiente

*Convenio de Colaboración entre el Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa.*

El Consejo de Diputados, en sesión de fecha 25 de abril de 2006, adoptó el Acuerdo que a continuación se publica:

«*Primero:* Aprobar el Convenio de Colaboración por el que se regulan las condiciones de financiación entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento para el Desarrollo Sostenible, y la Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa para impulsar acciones de información, formación, divulgación, participación y educación en el ámbito empresarial en materia fundamentalmente de prevención y gestión de residuos, cuyo texto se acompaña como Anexo al presente Acuerdo.

*Segundo:* Conceder a la Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa una subvención directa por importe de setenta y cinco mil (75.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0520.210.481.00.04. 2006.

*Tercero:* Facultar al Diputado Foral para el Desarrollo Sostenible para firmar en nombre de la Diputación Foral de Gipuzkoa dicho Convenio y adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones resulten convenientes para su cumplimiento.

*Cuarto:* Ordenar la publicación del texto de dicho Convenio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa».

ANEXO

De una parte, don Luis M.ª Oyarbide Arizmendi, en su calidad de Diputado Foral del Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Y de otra, don Agustín Eizaguirre Agote, actuando en su condición de Director General de la Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa, en adelante Cámara de Gipuzkoa, con domicilio en Donostia-San Sebastián, 20018, Avda. Tolosa, 75 y N.I.F n.º Q2073001F.

Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para suscribir el presente Convenio de colaboración entre las entidades por ellos representadas, y consiguientemente:

EXPONEN

La Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó definitivamente el día 17 de diciembre de 2002, tras un amplio e intenso proceso de participación y consenso social e institucional, el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2002-2016 (PIGRUG).

Entre otros objetivos del PIGRUG se encuentran la prevención de la generación, entendida como reducción y reutilización de residuos que supone un menor incremento de generación final de los mismos (está prevista la reducción en un 90% de la tasa de crecimiento), el reciclaje del 37,1% y el compostaje del 4% de los residuos urbanos generados en Gipuzkoa, para el año 2016. Teniendo en cuenta que parte de los residuos generados en las empresas pueden ser considerados residuo urbano, desde el Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa se considera objetivo deseable la colaboración y cooperación entre distintos agentes implicados en esta materia.

Por su parte, la Cámara de Gipuzkoa es una Cámara Oficial de Comercio, que actualmente se rige de acuerdo a la Ley 3/1993, de 22 de marzo, dedicada al fomento del desarrollo económico de las empresas del Territorio Histórico y a la

Nabigazioaren interes orokorrak babesten ditu. Izan ere, bere helburua merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioaren interes orokorrak ordezkatu, bultzatu eta babestea da eta, halaber, enpresei zerbitzuak eskaintzea.

Gipuzkoako Ganberak, gaur egun, kontzientziatze, orientatze eta aholkularitza lanak egiten ditu ingurumen arloan, batez ere, Gipuzkoako enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketa hobetzeko lanak. Halaber, enpresen ingurumen kudeaketa hobetzeari lotutako hainbat alderdiri buruzko sentsibilizazio, informazio, prestakuntza eta aholkularitza jarduera garatu ditu lanbide munduan, besteak beste, «Azpiproduktuen Poltsa» eta Izadi ingurumen zerbitzuen katalogoa prestatu ditu.

Hitzarmen honen barruan aurreikusitako jardueren artean Gipuzkoako enpresen jarduerei bereziki zuzendutako jarduketa lerro bat ezartzeko beharra planteatzen da, hondakinak sortu eta kudeatzen dituzten enpresekin, batez ere, zerikusia duten ingurumen esparruetan sentsibilizazio, informazio, prestakuntza eta aholkularitza lanak egiteko.

Adierazitakoagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak eta Gipuzkoako Ganberak, enpresa munduan hondakinen kudeaketa hobetzeko jarduketak burutzeko dagoen beharra ikusirik, lankidetza hitzarmen hau sinatzen dute ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

*Lehenengoa:* Lankidetza hitzarmen honen bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ganberak hondakinen prebentzio eta kudeaketari buruzko jarduketak bultzatzea erabaki dute, zehazki, enpresa munduari zuzendutako informazio, prestakuntza, zabaltze, parte hartze eta heziketa jarduketak.

*Bigarrena:* Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren bitartez, bere gain hartzen du hitzarmen honen azalpen zatian jaso eta ondorengo klausulan zehazten diren jarduketetarako diru laguntza emateko konpromisoa:

Aipatu jarduketaren kostua 100.000 eurokoa da hasiera batean eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du gehienez ere 75.000 euro jartzeko konpromisoa, 2006ko aurrekontuko 1.0520.210.481.00.04 kontu sailaren kargura.

*Hirugarrena:* Gipuzkoako Ganberak, bestalde, bere gain hartzen du hondakinen prebentzio eta kudeaketari buruzko ondorengo jarduketak antolatu, deialdia egin eta gauzatzeko konpromisoa:

— Jardunaldi teknikoak.

— Teknologien sustapena/erakustaldiak egiteko jardunaldiak.

— Hondakinen kudeaketa arloan enpresei zuzendutako orientazio zerbitzua.

Halaber, Gipuzkoako Ganberak bere laguntza eskainiko dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuari jarduketak aurrera eramateko. Hona hemen laguntza horren adierazpena:

— Parte hartuko du teknikari gisa hausnarketa/iritzi foroetan, lan taldeetan eta jardunaldi teknikoetan Garapen Iraunkorrerako Departamentuak hala eskatzen badio.

defensa de los intereses generales del Comercio, la Industria y la Navegación. Su finalidad es la representación, promoción y defensa de los intereses generales del Comercio, la Industria, los Servicios y la Navegación y la prestación de servicios a las empresas.

La Cámara de Gipuzkoa desarrolla en la actualidad actividades de concienciación, orientación, y asesoría en materia de medio ambiente, y en particular para la mejora de la gestión de los residuos peligrosos de las empresas guipuzcoanas, y ha venido desarrollando actividades de sensibilización, información, formación y asesoría en los ámbitos profesionales sobre distintos aspectos relacionados con la mejora de la gestión ambiental de la empresa, como la «Bolsa de Subproductos», el catálogo de servicios medioambientales Izadi y otros.

Entre las actividades previstas en el marco del presente Convenio, se plantea la necesidad de establecer una línea de actuación dirigida específicamente hacia las actividades empresariales de Gipuzkoa, orientada a las labores de sensibilización, información, formación y asesoría en los ámbitos de la actuación medioambiental que afecta a las empresas, que estén relacionadas fundamentalmente con la generación y gestión de residuos.

Por todo lo anterior, el Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Cámara de Gipuzkoa, conscientes de la necesidad de llevar a cabo acciones que contribuyan a promover la mejora de la gestión de residuos en el ámbito empresarial, acuerdan la firma del presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes:

CLAUSULAS

*Primera:* Por medio del presente Convenio de Colaboración, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Cámara de Gipuzkoa acuerdan impulsar acciones en materia de información, formación, divulgación, participación y educación en el ámbito empresarial en materia fundamentalmente de prevención y gestión de residuos.

*Segunda:* La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento para el Desarrollo Sostenible, se compromete a subvencionar las actuaciones recogidas en la parte expositiva del presente Convenio y concretadas en la cláusula siguiente:

El coste de la actuación mencionada se estima inicialmente en 100.000 €, comprometiendo la Diputación Foral de Gipuzkoa a tal efecto un gasto máximo de 75.000 €, con cargo a la partida 1.0520.210.481.00.04 del ejercicio presupuestario 2006.

*Tercera:* La Cámara de Gipuzkoa, por su parte, se compromete a organizar, convocar y ejecutar las siguientes actuaciones en el ámbito empresarial, en materia de prevención y gestión de residuos:

— Jornadas técnicas.

— Jornadas de promoción/demostración de tecnologías.

— Servicio de orientación a las empresas en materia de gestión de residuos.

Por otra parte, la Cámara de Gipuzkoa colaborará con el Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa en las actuaciones desarrolladas en dicho Departamento de la siguiente forma:

— Participando a nivel técnico en los Foros de Reflexión / Opinión, Grupos de Trabajo, o Jornadas Técnicas en los que el Departamento para el Desarrollo Sostenible lo solicite.

— Enpresen datu baseen zerbitzua eskainiko du edo Gipuzkoako informazio sozioekonomikoari dagokionez Gipuzkoako Ganberak duen informazioa emango du.

— Gipuzkoako Ganbararen egoitza berriak dituen prestakuntza aretoak eta areto nagusia utziko ditu gehienez ere sei bider urtean, inolako gastu gehigarririk gabe.

*Laugarrena:* Halaber, Gipuzkoako Ganberak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

— Garapen Iraunkorrerako Departamentua jakinaren gainean jartzea beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berdineko beste diru laguntzaren bat ematen badie, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

— Sei hilabetean behin Garapen Iraunkorrerako Departamentuari ematea hitzarmen honek eragindako ekonomi, estatistika eta funtzionamendu mailako datu guztiak.

— Hitzarmen honen xedearen inguruan egingo dituen jardun guztietan Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren lankidetza adieraztea.

— Hitzarmen honi lotutako publizitate liburuxkak edo publizitate mota guztiak prestatzea, euskaraz gutxienez.

— Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiari, edo horren izenean aritzen den edozein erakunde edo zerbitzu publiko nahiz pribaturi, ematea onartutako diru laguntzari buruzko edozein informazio, eta onartzea finantzen egiaztapen edo kontrolari buruz legeetan aurreikusitako edozein jarduera.

*Bosgarrena:* Gipuzkoako Foru Aldundiak hasierako faktura guztiak ordainduko dizkio Ganberari, zenbatekoa agortu arte, betiere, Ganberaren organo eskudunak aldez aurretik onartu baldin baditu. Administrazio sistemaren bitartez egiten diren jarduketetan, derrigorrezkoa izango da, bai materialen fakturak eta bai diruz lagundutako jarduketan parte hartzen duten langileen lan-ziurtagiriak (TC1 eta TC2) igortzea. Azkeneko faktura aurkezteaz bat, hitzarmen honen babespean egindako ekintzen emaitzei buruzko memoria xehekatua aurkeztuko da.

*Seigarrena:* Lankidetza hitzarmen honek, sinatzen denetik izango du eragina eta iraupena urtebetekoa izango da. Hala ere, epealdi hori bukatu eta egindako ekintzen emaitzak aztertu ondoren, hitzarmen hau aurrekontu baliabideen arabera luzatu ahal izango da bi alderdien adostasunarekin. Horretarako, bi alderdien konpromisoak jasoko dira eranskinaren bitartez.

*Zazpigarrena:* Hitzarmena behar bezala doala egiaztatzeko, Jarraipen Batzordea izendatuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuko bi ordezkarik eta Gipuzkoako Ganberako beste bi ordezkarik osatuta egongo dena.

Nola Garapen Iraunkorrerako Departamentuak hala Gipuzkoako Ganberak egoki iruditzen zaizkien bezainbat Jarraipen Batzordearen bilera egiteko deia egin dezakete. Dena den, bi alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzartutako akordioak zertan diren aztertzearren gutxienez sei hilero bilera egiteko.

*Zortzigarrena:* Izenpetzen duten aldeek ados egotea aski da hitzarmen hau iraungitzeko.

Hartutako konpromisoak alde batek ez baditu betetzen, beste aldeak ahalmena izango du bai hitzarmena zorrotz betetzea eskatzeko, eta bai hitzarmena indarrik gabe uzteko eta, bere kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ekarpen ekonomikoa oso-osorik itzultzea eskatzeko.

— Aportando el servicio de bases de datos empresariales, o facilitando información socioeconómica de Gipuzkoa, de que disponga la Cámara de Gipuzkoa.

— Poniendo a disposición el salón de actos, y salas de formación de la nueva sede de la Cámara de Gipuzkoa, sin coste adicional, hasta un máximo de 6 veces al año.

*Cuarta:* Asimismo, la Cámara de Gipuzkoa se compromete a:

— Comunicar al Departamento para el Desarrollo Sostenible la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados, así como la modificación de cualquier circunstancia que se hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

— Aportar semestralmente al Departamento para el Desarrollo Sostenible cuantos datos de carácter económico, estadístico y de funcionamiento relativos al objeto del presente Convenio se generen.

— Hacer constar, en todas las actuaciones relacionadas con la del objeto del presente Convenio, la colaboración del Departmento para el Desarrollo Sostenible.

— Elaborar los folletos publicitarios o publicidad en general relacionada con este convenio, por lo menos en euskara.

— Facilitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas o cualesquiera organismos o servicios públicos o privados que desempeñen tareas en su nombre, la información que les sea requerida respecto a la ayuda concedida y someterse a las actuaciones de comprobación o control financiero previstas en la normativa vigente.

*Quinta:* La aportación económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa se hará efectiva a la Cámara mediante el abono íntegro de las facturas iniciales, hasta agotar su importe, las cuales deberán haber sido previamente aprobadas por el órgano competente de la Cámara. En aquellas actuaciones que se realicen por el sistema de administración, será preceptiva la remisión tanto de las facturas de materiales como de los certificados laborales de los trabajadores intervinientes (TC1, TC2) adscritos expresamente a la actuación subvencionada. Paralelamente a la presentación de la última factura se aportará una memoria detallada de los resultados obtenidos con las acciones realizadas al amparo de este convenio.

*Sexta:* El presente Convenio de Colaboración surte efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma y tendrá una duración de un año. No obstante, al término de dicho período, una vez analizados los resultados de las acciones llevadas a cabo y en función de las disponibilidades presupuestarias existentes, se podrá plantear, de mutuo acuerdo, la prórroga del mismo, para lo cual, mediante anexo se recogerán los compromisos de ambas partes.

*Séptima:* Al objeto de verificar el correcto desarrollo del Convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento formada por dos representantes del Departamento para el Desarrollo Sostenible y otros dos representantes de la Cámara de Gipuzkoa.

Tanto el Departamento para el Desarrollo Sostenible como la Cámara de Gipuzkoa podrán convocar cuantas reuniones de la Comisión de Seguimiento estimen oportuno, comprometiéndose ambas partes a mantener, al menos, una reunión semestral para analizar la marcha de los acuerdos pactados.

*Octava:* Será causa de resolución del presente Convenio el mutuo acuerdo de las partes.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del Convenio y, en su caso, la devolución íntegra de la aportación económica realizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Indarrik gabe utziz gero, alderdiek berek zehaztuko dituzte amaitze horren baldintzak, gauzatze bidean diren jardueren ordainketarekin batera.

*Bederatzigarrena:* Hitzarmen hau administratiboa da; interpretazioa eta garapena, beraz, herri administrazioen arteko lankidetza hitzarmenei aplikatzen zaien lege ordenamendu administratiboak araupetuko ditu. Berariaz bete behar da, aurreikusita ez dagoen guztietan, diru laguntzei buruzko araudiak xedatzen duena.

Interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak, Administrazioarekiko Auzietarako Antolamenduaren eskumenekoak izango dira.

*Hamargarrena:* Esku hartzen duen alderdi bakoitzak bere gain hartzen ditu lankidetzarako hitzarmen honen indarrez dagozkion konpromisoen ardurak, ez besterik.

Lankidetzarako hitzarmen hau irakurrita, egileek berretsi egin dute hor esandakoa, eta adostasun froga gisa, bi aletan izenpetu dute, buruan adierazitako toki eta egunean.

Donostia, 2006ko apirilaren 27a.—Juan José de Pedro Alonso, idazkari teknikoa.

(1483) (4556)

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

*Novena:* El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios entre administraciones públicas. Se declara de expresa aplicación, en todo lo no previsto, lo dispuesto en la vigente normativa de subvenciones.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo contencioso-administrativo.

*Décima:* Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente Convenio de Colaboración.

Tras la lectura del presente Convenio de Colaboración, los otorgantes se ratifican y afirman en su contenido y, en prueba de conformidad, lo firman por duplicado en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Donostia-San Sebastián, a 27 de abril de 2006.—El secretario técnico, Juan José de Pedro Alonso.

(1483) (4556)

## LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA

### Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia

*Elgoibarko Maala 2-3 eta Usetxe Alorrei dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa. (GHI-166/05-P05-A).*

(14. ALDAKETA)

Diputatuen Kontseiluak 2006ko martxoaren 28ko batzarraldian, erabaki bat hartu zuen eta hori ematen da ondoren argitara:

«Udal fasea amaitu ondoren, Elgoibarko Maala 2-3 eta Usetxe alorrei dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa aurkeztu da, Foru Aldundiak behin betiko onar dezan.

Proiektuaren helburua da 1992ko urtarrilaren 8an behin betiko onartutako Elgoibarko Hiri Antolaketako Arauek Maala-2, Maala-3 eta Usetxe alorrentzat ezarritako hirigintza xedapenak aldatzea; horrela, alor horiek berriro mugatzea proposatzen da, aprobetxamendu orokorrak eta gehienezko etxebizitza kopurua handitzea eta lur azpian 76 bat garaje plaza izango dituen aparkaleku publikoa egitea. Laburbilduta, aldaketa hauek egingo dira:

— Maala-2 Alorra izeneko lurzoru hiritargarri berria sortuko da, egungo Maala-2 eta Maala-3 alorrak eta Usetxe Alorretik bereiztutako 883,40 m² batuta, hain zuzen.

— Indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako etxebizitza kopuruari babes ofizialeko 16 etxebizitza gehitzen zaizkio.

— Espazio irekien sistema orokor gisa kalifikatzen da 371,50 m²-ko lursaila.

## DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACION Y PROMOCION TERRITORIAL

### Dirección General de Ordenación Territorial

*Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Elgoibar relativa a los Sectores Maala 2-3 y Usetxe (GHI-166/05-P05-A).*

(MODIFICACION N.º 14)

El Consejo de Diputados en sesión de 28 de marzo de 2006, adoptó el acuerdo cuyo contenido a continuación se publica:

«Concluida la fase municipal, se presenta para aprobación definitiva por esta Diputación Foral el expediente de «Modificación de Elementos de las Normas Subsidiarias de Elgoibar en lo referente a los sectores Maala 2-3 y Usetxe».

El proyecto tiene por objeto alterar las determinaciones urbanísticas establecidas para los sectores Maala 2, Maala 3 y Usetxe en las vigentes Normas Subsidiarias de Elgoibar, aprobadas definitivamente con fecha 8 de enero de 1992, planteándose la redelimitación de los referidos ámbitos, el incremento de los aprovechamientos globales y del número máximo de viviendas y la creación de un aparcamiento público en subsuelo con capacidad aproximada para 76 plazas de garaje. De forma resumida resultan básicamente las siguientes modificaciones:

— Se plantea el nuevo ámbito de suelo urbano denominado Sector Maala 2 resultante de agrupar los actuales sectores Maala 2 y Maala 3 con la superficie –883,40 m²– segregada del sector Usetxe.

— Se incrementa en 16 viviendas de protección oficial la capacidad residencial prevista en el planeamiento vigente.

— Se califica como Sistema General de Espacios Libres una superficie de 371,50 m².

— Egungo Maala-3 alorrean aurreikusitako erabilpen komunitarioko eraikinaren antolaketa, aprobetxamendu eta erabilpen erregimena aldatuko da eta, horrela, eraikinak babes ofizialeko 16 etxebizitza, osasun ekipamendua solairu batean eta garajeak beste batean izango ditu. Bestalde, 76 bat garaje plaza izango dituen aparkaleku publiko berri bat zehazten da eta areako beste eraikin guztiak finkatzen dira.

— Ostalaritza erabilera berariaz baimentzen da Maala-2 alor berrian.

Jarduera hauek egin dira udal fasean:

Aurrerapena jendaurrean ikusgai izan ondoren eta inolako iradokizunik jaso ez denez, 2004ko uztailaren 29ko Udal Batzarrak hasierako onarpena eman zion; ez zen alegaziorik jaso.

Udal Batzarrak 2005eko ekainaren 29an behin-behineko onartu zuen 2005eko maiatzeko dokumentua. Dokumentuan hotel bat egiteko aukera jasotzen da eta Ubitarte Buruko babestutako etxebizitzen xedapena kendu egiten da, aurreikuspen hori babes ofizialeko 16 etxebizitza egingo diren Maala alorrera aldatuz.

Espedientea behin betiko onartzeko bidali zuten eta Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeak, 2005eko abenduaren 12an eginiko bileran, aldeko iritzia eman zion. Bestalde, guneak uholdeak izateko arriskuari buruzko adierazpenak jaso ditu Uren Zuzendaritzaren txostenak eta proposamenaren aldeko iritzia ematen du, ez baitu antzeman Deba ibaiaren eta bere zortasun eta zaingunearen herri jabari hidraulikoari eragiten dioenik.

Azkenik, 2006ko martxoaren 10ean Udal Batzarrak hartutako erabakia bidali digu Elgoibarko Udalak eta, bertan behera uzten da lehen aipatu erreserba kentzeko erabakia, hau da, Ubitarte Buru alorreko 3. Unitateko 1. lurzatian babes ofizialeko 12 etxebizitza egitekoa. Era berean, Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek egindako txostenean adierazitako akatsak zuzentzen dituen Testu Bateratua izeneko 2006ko martxoko dokumentu osoa onartzen da.

Horrela, Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuak dokumentuaren edukia aztertu ondoren, adierazi du bidezko dela behin betiko onartzea.

Ondorioz, eta tramitatzerakoan hirigintzako legerian aurreikusitako jardunbidea segitu denez, Diputatuen Kontseiluak, aplikagarri den legeria ikusirik, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuko foru diputatuaren proposamenez eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

Behin betiko onartzea Elgoibarko Maala 2-3 eta Usetxe alorrei dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, 2006ko martxoaren 10eko Udal Batzarrak onartutako dokumentuaren arabera.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta

— Se modifican las condiciones de ordenación, aprovechamiento y régimen de usos para el edificio de uso comunitario previsto en el actual sector Maala 3, que acogerá las 16 viviendas de protección oficial, una planta de equipamiento asistencial y otra de garajes; se define un nuevo aparcamiento público en subsuelo con capacidad aproximada para 76 plazas de garaje y se consolida el resto de las edificaciones del área.

duten pertsonei, eta istripua izan duten edo arriskuan dauden pertsonei laguntzeko. Era berean, igarotzerakoan edo altzari publikoak erabiltzerakoan behar handiena duten pertsonei lehentasuna emateko ohitura bultzatuko da, eta baita beste elkartasun eta hezkuntza jokaera batzuk ere.

2. Haurrak edo pertsona ezinduak galduta, edo fisikoki nahiz psikikoki gaizki dauden pertsonak aurkitzen dituzten pertsona guztiek agintaritzaren agenteei jakinaraziko diete, eta horiek arduratuko dira pertsona horiek babesteaz eta haien tutoretza eta ardura dutenengana itzultzeaz.

*10. artikulua. Ondasun publikoen erabilera.*

Duten izaeraren arabera erabili behar dira ondasun publikoak, egoki eta behar bezala beti ere, eta gainerako herritarrek ere ondasun horiek erabiltzeko duten eskubidea errespetatuz.

*11. artikulua. Agintaritzaren agenteen eta udal zerbitzuen jokabidea.*

1. Agintaritzaren agenteek eta udal zerbitzuek uneoro zuzen eta gizalegez tratatuko dituzte herritarrak, eta behar dutenei laguntza eman eta babestuko dituzte. Beren interbentzioetan beharreko informazio guztia emango dute beren ekintzen arrazoi eta helburuen inguruan.

2. Agintaritzaren agenteek egokitzat hartzen dituzten aginduak eta jarraibideak eman ahal izango dizkiete herritarrei, Ordenantza honetan jasotako zehaztapenak beteko direla ziurtatzeko.

Arau-haustea izango da agintaritzaren edo bere agenteen aginduak ez betetzea, agindu horiek Ordenantza honetan edo indarrean dagoen beste legeria batean xedaturikoa zuzen aplikatuta ematen direnean, eta arau-hauste penala ez denean.

3. Kasu larriak direnean eta 1. atalaren arabera jardun ondoren, pertsonen gainean agintea erabili behar bada, hertsiki ezinbestekoak diren indar-ekintzak soilik burutuko dira, ukituriko pertsonen duintasuna erabat errespetatuz.

4. Fabrika, lokal edo establezimenduen titularrek edo arduradunek, leku horietan sartzeko erraztasunak emango dizkiete udal ikuskapen zerbitzuei, Ordenantza honetan edo udal eskumeneko beste araudietan xedaturikoaren araberako ikuskapen edo kontrolak egin ahal izateko.

## II. KAPITULUA. GIZALEGEZKO JOKABIDEARI BURUZKOA

*12. artikulua. Altzari eta espazio publikoak babestea.*

1. Udalerrian dauden hiri altzariak egoki eta behar bezala erabiltzeko obligazioa dute herritar guztiek, altzari horiek errespetatu egin behar dira, haien kontserbazio eta erabilera arrunterako hondamenik sortu gabe.

2. Debekatuta daude altzariak eta espazio publikoak zikindu eta hondatzen dituzten edo honda ditzaketen ekintzak burutzea, eta bereziki, honako ekintza hauek:

a) Eserlekuak beren erabilera naturalaren aurka erabiltzea, ezin dira zapaldu, ezin dira dauden lekuetatik kendu, ez hautsi, ez zikindu eta, oro har, ezin da haien erabilera kaltetu edo kontserbazioa hondatuko duen ezer egin.

b) Debekatuta dago jokorako tresnak modu txarrean eta kalte egin edo hausteko moduan erabiltzea, haurrentzako jokoak ezin dituzte helduek edo adin txikikoak izan arren jokoan jartzen duen adina gainditzen dutenek erabili.

ayuda a las personas que así la necesiten para transitar u orientarse, que hayan padecido accidentes o se encuentren en circunstancias de riesgo. Se fomentará también la costumbre de ceder la preferencia en el paso o en el uso del mobiliario urbano a las personas que más lo necesiten, así como otras actitudes de solidaridad y educación.

2. Todas las personas que encuentren niños o personas discapacitadas extraviadas o personas en situación de evidente estado de anomalía física o psíquica deben ponerlo en conocimiento de los agentes de la autoridad, los cuales se harán cargo de su protección y restitución a los responsables de su tutela.

*Artículo 10. Uso de los bienes públicos.*

Los bienes públicos deben ser utilizados de acuerdo con su naturaleza, haciendo un buen uso de los mismos y respetando siempre el derecho que el resto de ciudadanos poseen también para su disfrute.

*Artículo 11. Comportamiento de los agentes de la autoridad y los servicios municipales.*

1. Los agentes de la autoridad y los miembros de los servicios municipales tratarán en todo momento con corrección y cortesía a los ciudadanos, a los que auxiliarán y protegerán. En sus intervenciones proporcionarán la información apropiada sobre las causas y finalidades de sus actuaciones.

2. Los agentes de la autoridad podrán dar a los ciudadanos las órdenes e instrucciones oportunas en orden a garantizar el cumplimiento de las determinaciones contenidas en la presente Ordenanza.

Constituirá infracción desobedecer los mandatos de la autoridad o de sus agentes, dictados en directa aplicación de lo dispuesto en la presente Ordenanza u otra legislación vigente, cuando no constituya infracción penal.

3. En los casos de gravedad y tras actuar conforme al apartado 1.º, en que sea necesario utilizar el mandato de autoridad sobre las personas, se llevarán a cabo los actos de fuerza estrictamente indispensables, con pleno respeto a la dignidad de las personas afectadas.

4. Los titulares o regentes de fábricas, locales o establecimientos, facilitarán a los servicios de inspección municipales el acceso a éstos para la realización de las inspecciones o controles reglamentarios, establecidos conforme a lo dispuesto en la presente Ordenanza u otras normativas de competencia municipal.

## CAPITULO II. DEL COMPORTAMIENTO CIVICO

*Artículo 12. Protección del mobiliario público y de los espacios públicos.*

1. Es obligación de todos los ciudadanos hacer un buen uso del mobiliario público existente en el municipio, debiendo éste ser respetado y utilizado de tal forma que no sufra deterioro que impida su normal conservación y uso.

2. Quedan prohibidas las acciones que ensucien, produzcan daños o sean susceptibles de producirlos en el mobiliario y espacios públicos y, en concreto, los siguientes actos:

a) El uso de bancos de forma contraria a su natural utilización, no debiendo ser pisoteados, ni arrancados del lugar en que estén colocados, ni rotos, ni manchados y, en general, todo aquello que perjudique su uso o deteriore su conservación.

b) Queda prohibida la utilización de los aparatos de juegos de forma indebida que los puedan dañar o destruir, así como la utilización de los aparatos de juegos infantiles por los adultos o por menores de edad superior a la indicada para el juego.

c) Debekatuta dago zaborrak, pipak, txikleak, zorroak edo paperak zeregin horretarako dauden paperontzietatik kanpo botatzea.

d) Debekatuta dago paperontziak irauli edo beren tokietatik ateratzea, eta baita haien itxura eta osotasuna honda dezaketen beste ekintza guztiak ere.

e) Debekatuta dago hiri hondakinen paperontzi eta edukiontzietan tresna edo objektu arriskutsuak botatzea.

Ondorio horietarako, tresna edo objektu arriskutsuak izango dira pertsonei kalte egin diezaieketen guztiak, hauxe da, animaliak eta animalien hondakinak, xiringak eta substantzia estupefazienteak kontsumitzeko tresnak, osasun arretan erabilitako materialak gaixotasunak kutsatu edo zabaldu ditzaketenean, eta era guztietako droga toxikoak, estupefazienteak eta produktu kimiko, erradiaktibo eta piroteknikо guztiak eta lehertu daitezkeen edo sua piztu dezaketen guztiak, pila eedo bateriak, aparailu elektriko edo elektronikoak, pintura pote eta lurrun-gailuak, bonbillak edo fluoreszenteak.

f) Debekatuta dago iturri publikoetako tutuak, kanilak eta gainerako elementuak manipulatzea haien funtzionamendu normaletik kanpo.

Dekorazio iturrietan debekatuta dago zikintzea, eta bertako ura garbitu, bainatu edo barruan sartzeko erabiltzea, eta debekatuta dago iturri horietara edozein detergente, koloragarri edo produktu kimiko botatzea.

g) Debekatuta dago herrian dauden zuhaitz, farola, estatua, seinale eta gainerako apaingarriak kaltetuko dituen edozein ekintza edo manipulazio, eta baita elementu horiek hondatzen dituzten ekintzak ere.

h) Debekatuta dago sua eta ekintza piroteknikoak egitea udalaren edota alor horretan eskumena duten administrazioen derrigorrezko baimenik gabe. San Joan bezperako suak eta antzekoak egiteko, udalaren baimena lortu beharko da aurrez jakinarazita.

Hirigunearen barnean barbakoen erabilera mugatua egongo da arriskugarritasunagatik edo gainerako herritarrei edo dauden berariazko arauei eragozpenak sortzeagatik.

i) Debekatuta dago animaliei bide publikoko gizakien kontsumorako iturrietatik zuzenean edaten uztea.

j) Debekatuta dago iturri edo urmaeletan edo bide publikoan usain txarrak eta eragozpenak sortzen dituzten substantziak botatzea.

*13. artikulua. Berariazko debekuak.*

1. Debekatuta dago bide publikoan kirol edo joko jarduerak burutzea, pertsona edo ondasunei kalteak edo herritarrei eragozpenak eragiteko moduko objektuak edo tresnak erabiltzen badira, horretarako baimendutako leku eta eremuetan eta baimendutako ordutegietan izan ezik. Plazetan jokoan edo jolasean ibili daitekeen lekuak zehaztuko dira, horrelakorik egin badaiteke bederen.

Azalpen gisa, esango genuke, debekatuta dagoela kale eta plazetan pertsonei eta jabetza pribatuei arrisku edo kalte nabarmenak eragin diezazkieketen baloi, disko hegalari, boomerang eta abarrekin jolastea.

2. Debekatuta dago bide publikoan petardoak edo bengalak erabiltzea, eta debekatuta dago edozein moldetako objektuak jaurtikitzen dituzten tresna edo gailuak erabiltzea, esate baterako, arkuak, zerbatanak, tiragomak eta bolak botatzen dituzten pistolak.

c) Queda prohibido arrojar desperdicios, pipas, chicles, envoltorios o papeles fuera de las papeleras a tal fin establecidas.

d) Queda prohibido volcar o arrancar las papeleras, así como otros actos que deterioren su aspecto e integridad.

e) Queda prohibido arrojar instrumentos u objetos peligrosos o nocivos en las papeleras y contenedores destinados a los residuos urbanos.

A estos efectos, se considerarán instrumentos u objetos peligrosos o nocivos todos aquellos susceptibles de generar daños a las personas o al medio ambiente, tales como animales y restos de animales, jeringuillas y útiles para el consumo de sustancias estupefacientes, materiales utilizados en la atención sanitaria que puedan ser susceptibles de contagiar o propagar enfermedades, así como todo tipo de drogas tóxicas, estupefacientes y productos químicos, radioactivos, pirotécnicos, explosivos o incendiarios, pilas y baterías, aparatos eléctricos y electrónicos, botes o aerosoles de pintura, bombillas o fluorescentes.

f) Queda prohibida toda manipulación en cañerías, grifos y demás elementos de las fuentes públicas que no sean propias de su funcionamiento normal.

En las fuentes decorativas se prohíbe ensuciarlas, utilizar el agua de las mismas para limpiar, bañarse o introducirse en sus aguas, así como arrojar cualquier tipo de detergente, colorante o producto químico.

g) Queda prohibida cualquier acción o manipulación que perjudique a los árboles y otras plantas, farolas, estatuas, señales y demás elementos decorativos existentes en el municipio, así como cualquier acto que deteriore los mismos.

h) Queda prohibido hacer fuego y actividades pirotécnicas sin la preceptiva autorización municipal y la de las administraciones competentes. Las hogueras de la víspera de San Juan y similares requerirán autorización municipal mediante acto comunicado.

La utilización de barbacoas dentro del casco urbano, estará limitada por la peligrosidad o molestias que puedan generar al resto de ciudadanos o a las normas específicas existentes.

i) Queda prohibido permitir que los animales beban directamente de las fuentes situadas en la vía pública y destinadas al consumo humano.

j) Queda prohibido verter o arrojar en las fuentes y estanques o a la vía pública cualquier sustancia que genere malos olores y molestias en general.

*Artículo 13. Prohibiciones específicas.*

1. Se prohíbe la práctica en la vía pública de actividades deportivas o lúdicas en las que se utilicen objetos o instrumentos que pueden causar daños a las personas o bienes, o molestias a la ciudadanía, salvo en los lugares y en las zonas autorizadas para ello y en los horarios autorizados. En las plazas se indicarán las zonas en las que pueda practicarse el juego, siempre que ello sea posible.

A título meramente enunciativo, queda prohibido jugar en calles y plazas con balones, discos voladores, boomerangs, etc. que entrañen riesgos evidentes o molestias notables para personas y propiedades privadas.

2. Queda prohibida la utilización en la vía pública de petardos o bengalas y cualquier instrumento o artilugio que proyecte cualquier tipo de objeto, tales como arcos, cerbatanas, tiragomas y pistolas lanza-bolas.

3. Debekatuta dago oinezkoentzako plazetan eta espaloietan motozikleta eta ziklomotorretan ibiltzea.

4. Debekatuta dago fatxadetatik aurrera ateratzen diren lorontziak eta abar jartzea, eraikineko berezko elementuek behar bezala eusten ez dietenean.

5. Auzokoen atsedena errespetatzeko eta etxean bizikidetza arrunta nahasiko duen zaratarik ez egiteko betebeharra dute herritar guztiek.

Etxebizitzen artean auzokoen bizikidetza-zaratek sortzen dituzten eragozpenek Jabetza Horizontalaren Legean dute beren erregulazio juridikoa, baina alderdi arruntago batzuk Ordenantza honen aplikazio esparruan sartzen dira modu orokorrean, kasu horietan sorturiko kontaminazio akustikoa onartzeko moduko mugen barnean egon dadin bertako erabileren arabera.

Arrazoi horregatik, honako prebentzio hauek zehazten dira, 22:00etatik 8:00ak arteko ordutegiari eta harrera puntuan 30 dBA-ko (LpAfmax) soinu mugari dagozkionak guztiak ere:

a) Etxe partikularren barnean eta eskaileretan, patioetan eta, oro har, etxebizitzetako erabilera komunitarioko espazioetan ezin da ozenegi abestu edo hitz egin gaueko 0,00etatik goizeko 7etara bitarte.

b) Ezin dira ateak eta leihoak zalapartan itxi, bereziki arestian aipaturiko ordutegi horretan.

c) Etxe barruan ezin da beste edozein modutako zaratarik egin, bereziki gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arteko ordutegian, etxean konponketa material edo mekanikoak, altzari edo etxetresna elektrikoen aldaketak egin behar direnean edo beste edozein arrazoirengatik. Nolanahi ere, horiek ezin izango dituzte 30 dB-ak gainditu harrera puntuan.

d) Auzokoek ezin izango dute, gaueko 22:00etatik goizeko 7:00ak arte, patio, terraza, galeria, balkoi eta beste espazio itxi eta irekietan, beren soinu, oihu edo kantuekin aldamenekoen atsedena hauts dezakeen animaliarik utzi.

Edozein ordutan beren jabe edo arduradunek erretiratu egin beharko dituzte eraikineko gainerako biztanleei edo ondoko eraikinetakoei, modu nabarmenean, eragozpenak sortzen dizkietenean.

*14. artikulua. Parke eta lorategi publikoak.*

1. Herriko parke eta lorategi publikoak errespetatzeko obligazioa dute herritarrek.

2. Parke, lorategi eta lorontzietako eta bide publikoan aldatutako landare espezie desberdinak ongi kontserbatu eta mantendu ahal izateko, erabat debekatuta daude honako ekintza hauek:

a) Landareak lapurtzea.

b) Soropila eta landareak hondatzea edo bertan kanpatzea.

c) Zuhaitzak edo zuhaixkakl bota, inausi eta haustea edo haietara igotzea.

d) Zuhaitzen azaletan gauzak idatzi edo margotzea, punta zorrotzak sartzea, zuhaitz horiei eskailerak edo tresnak eta aldamioen euskarriak lotzea eta kartelak jartzea.

3. Queda prohibida la circulación en motocicletas y ciclomotores por las plazas peatonales y aceras.

4. Queda prohibida la colocación de jardineras, macetas, etc. que sobresalgan de las fachadas y que no estén debidamente soportadas por los propios elementos del edificio.

5. Todos los ciudadanos están obligados a respetar el descanso de los vecinos y a evitar la producción de ruidos domésticos que alteren la normal convivencia.

Las molestias por ruidos de convivencia vecinal entre viviendas, encuentran su regulación jurídica en la Ley de Propiedad Horizontal, aunque algunos aspectos más comunes se incluyen en el ámbito de aplicación de la presente Ordenanza en forma generalista, de manera que la contaminación acústica producida en estos casos se mantenga dentro de los límites tolerables de conformidad con los usos locales.

Por este motivo, se establecen las prevenciones siguientes, todas ellas referidas al horario comprendido entre las 22 y las 8 horas y a un límite sonoro de 30 dBA (LpAfmax) en el punto de recepción:

a) No está permitido cantar o hablar en un tono excesivamente alto en el interior de los domicilios particulares y en las escaleras, patios y en general cualquier espacio de uso comunitario de las viviendas, desde las 0,00 horas de la noche hasta las 7 horas de la mañana.

b) No está permitido cerrar puertas y ventanas estrepitosamente, especialmente en el periodo señalado anteriormente.

c) No está permitido cualquier otro tipo de ruido que se pueda evitar en el interior de las casas, en especial en el periodo de tiempo comprendido desde las 22 horas hasta las 8 horas, producido por reparaciones materiales o mecánicas de carácter doméstico, cambio de muebles, aparatos electrodomésticos u otras causas, que en cualquier caso no deberán superar los 30 dB en el punto de recepción.

d) Los vecinos procurarán, desde las 10 horas de la noche hasta las 7 horas de la mañana, no dejar en los patios, terrazas, galerías, balcones u otros espacios abiertos o cerrados, animales que con sus sonidos, gritos o cantos estorben el descanso de los vecinos.

A cualquier hora deberán ser retirados por sus propietarios o encargados cuando, de manera evidente, ocasionen molestias a los otros ocupantes del edificio o de los edificios vecinos.

*Artículo 14. Parques y jardines públicos.*

1. Es obligación de los ciudadanos respetar los parques y jardines públicos del municipio.

2. Para la buena conservación y mantenimiento de las diferentes especies vegetales de parques, jardines, jardineras y árboles plantados en la vía pública, quedan prohibidos los siguientes actos:

a) La sustracción de plantas.

b) Dañar el césped y plantaciones o acampar.

c) Talar, podar, romper árboles y arbustos o subir a los mismos.

d) Grabar o pintar sus cortezas, clavar puntas, atar a los mismos escaleras, herramientas, soportes de andamiaje y colocar carteles.

e) Aldi baterako bada ere, obra materialak zuhaitzetan pilatzea eta haietan edozein produktu toxiko isurtzea.

f) Berdeguneetan, haiek hondatzeko edo duten estetika eta erabilera ona kaltetzeko moduko zaborrak, hondakinak, harriak, legarra edo beste edozein produktu botatzea.

g) Soropil eta lorategietan gorotzak uztea.

h) Parke eta lorategietan sua edo suteak piztea.

i) Motor edo ziklomotorretan ibiltzea. Bizikletak ibili ahal izango dira baldin eta bertan dagoen jende kopuruak horretarako aukerarik ematen badu eta eragozpenik sortzen ez bada.

j) Ibilgailuak aparkatzea.

3. Era berean, ordutegi arautua duten parkeetan egotea debekatuta dago, ixteko ordutegi horretatik kanpo.

*15. artikulua. Droga eta edari alkoholdunen kontsumoa. Arma eta tresna arriskutsuak.*

1. Drogen kontsumoan, eta arma eta tresna arriskutsuak eraman eta erabiltzean, alor horretan indarrean dagoen araudian jasotako arauak beteko dira.

2. Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu legez kanpoko drogak, substantzia estupefazienteak, substantzia psikotropikoak eta arma eta tresna arriskutsuak.

3. Bide publikoan edari alkoholdunak kontsumitzeari dagokionean, debekatuta dago:

a) Bide publikoan edari alkoholdunak saldu eta kontsumitzea, terraza edo kanpoko mahaietan, feria egunetan, herriko jaietan, edo ekitaldi berezietan izan ezik, baina nolanahi ere, dagokion udal lizentzia beharko da.

b) Ostalaritza establezimenduetan edariak saldu edo hornitzea kanpoan (bide publikoan) kontsumitzeko, terrazetan edo beharreko udal baimena duten beste instalazio batzuetan izan ezik.

c) 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak saldu, hornitu eta kontsumitzea, bai salmenta lekuetan bai kontsumo lekuetan.

Era berean, adin txikikoekiko edari alkoholdunen horniduraren erantzuleak izango dira, adin nagusikoak izanik eta establezimendu eta komertzioetako arduradunen kontroletik ihes egiteko, edari alkoholdunak erosi eta adin txikikoei ematen dizkieten hirugarren pertsona guztiak.

Segurtasun arrazoiengatik, kontzertuak edo antzeko ekitaldiak bezala jendetza handiak biltzen dituzten ikuskizunetan, nahiz eta udalaren baimena izan edari alkoholdunak saltzeko aukera barne, edari horiek plastikozko edalontzietan emango dira, eta inola ere ez dira onartuko kristal eta beirazko ontziak, ez eta lata edo antzekoak ere.

*16. artikulua. Eskaletza.*

1. Debekatuta dago adin txikikoak udalerriaren barruan eskean ibiltzea, eta adin txikikoen babesaren alorrean indarrean dagoen legeriak xedaturikoa beteko da beti ere.

2. Debekatuta dago dirua edo limosna eskatzea bortxaz edo beldurra sorraraziz hitzez edo egitez. Era berean, debekatuta dago diruaren ordez objektuak edo zerbitzuak eskaintzea bortxaz eta beldurra edo eragozpenak sortuz. Nolanahi ere, Udaltzaingoak ekintza horien berri eman ahal izango dio eskumena duen Auzitegiari.

e) Acopiar, aun de forma transitoria, materiales de obra sobre cualquiera de los árboles o verter en ellos cualquier clase de productos tóxicos.

f) Arrojar en las zonas verdes basuras, residuos, piedras, grava o cualquier otro producto que puedan dañarlas o atentar a su estética y buen uso.

g) Dejar excrementos sobre el césped y jardines.

h) Encender fuegos u hogueras en los parques y jardines.

i) Circular con motos o ciclomotores. Las bicicletas podrán hacerlo siempre que la afluencia de público lo permita y no causen molestias.

j) Estacionar vehículos.

3. Queda igualmente prohibido permanecer en el interior de los parques con horario regulado, más allá del horario de cierre.

*Artículo 15. Consumo de drogas y bebidas alcohólicas. Armas e instrumentos peligrosos.*

1. El consumo de drogas, así como el portar y utilizar armas e instrumentos peligrosos, se ajustará a las normas contenidas en la legislación vigente sobre la materia.

2. La Policía Local procederá al decomiso inmediato de las drogas, sustancias estupefacientes, psicotrópicas y de las armas e instrumentos peligrosos fuera de la ley.

3. En lo referente al consumo de bebidas alcohólicas en la vía pública, se prohíbe:

a) La venta y el consumo de bebidas alcohólicas en la vía pública, salvo en terrazas o veladores, durante los días de feria, fiestas patronales o eventos especiales contando, en todo caso, con la correspondiente licencia municipal.

b) La venta o suministro de bebidas en los establecimientos de hostelería para ser consumidos en el exterior (vía pública), salvo en las terrazas u otras instalaciones con la debida autorización municipal.

c) El suministro, venta y consumo de bebidas alcohólicas a menores de 18 años, tanto en lugares de expedición, como en los de consumo.

Serán también responsables del suministro de bebidas alcohólicas a menores, aquellas terceras personas que siendo mayores de edad y que con el fin de eludir el control de los responsables de los establecimientos de los comercios, adquieran personalmente las bebidas alcohólicas y posteriormente se las faciliten a menores.

Por razones de seguridad, en aquellos espectáculos multitudinarios como conciertos u otros eventos similares que cuenten con autorización municipal incluyendo la posibilidad de dispensar bebidas alcohólicas, éstas se servirán en vasos de plástico, no permitiéndose en ningún caso envases de cristal, vidrio así como latas o similares.

*Artículo 16. Mendicidad.*

1. Se prohíbe el ejercicio de la mendicidad por los menores de edad dentro del término municipal, debiéndose estar a lo que disponga la legislación vigente en materia de protección de menores.

2. Queda prohibida la petición de dinero o limosna ejercida de forma coactiva intimidatoria o molesta de palabra u obra. Asimismo queda prohibido el ofrecimiento de objetos o servicios a cambio de dinero efectuado con maneras coactivas, intimidatorias o molestas. Todo ello sin perjuicio de que la Policía Local dé cuenta de tales actuaciones al Juzgado competente.

3. Agintaritzaren Agenteak, gizarte eta udal zerbitzuak eta beste erakunde batzuen zerbitzuak daudela jakinaraziko die beharra duten pertsonei, behar dituzten sorospena eta laguntza eska ditzaten.

4. Gizarte Ongizateko udal zerbitzuak, ageri duten egoera ikusirik, arreta eskainiko die gaua pasatzeko lekurik ez duten pertsonei, bereziki neguan.

*17. artikulua. Salmenta ibiltaria.*

1. Edozein produkturen salmenta ibiltaria debekatua dago bide publikoan edo establezimenduetan, ordenantza honetan espres araututako kasuetan izan ezik, eta gainera beharreko udal baimena eskuratu beharko dute horiek ere.

Salmenta ibiltaria izango da merkatariek merkataritza establezimendu iraunkor batetik kanpo, espazio libre eta berdeguneetan edo bide publikoan, egiten dutena leku eta egun desberdinetan.

Salmenta ibiltaria debekatzeko printzipio orokorraren salbuespen gisa, eta Ordenantza honetan jasotako salbuespenei kalterik egin gabe, Udalak salmenta ibiltariaren modalitate hori baimendu ahal izango du gobernuz kanpoko instituzioekin sinaturiko hitzarmenen bidez, indarrean dagoen legeriaren arabera osatu ondoren, gizarte intereseko helburuak dituztenean, hainbat alor edo produkturen inguruan arauek zehazten dituzten debekuak kontuan harturik beti ere.

Produktu batzuen salmenta ibiltarirako baimenik ezin izango da eman dagokien araudiak horretarako debekua ezartzen badu.

2. Salmenta ibiltaria desmuntatzeko moduko postu edo instalazioetan egingo da, eta dagokien baimenak zehatz adierazitako lekuan edo lekuetan soilik jarri ahal izango dira postu horiek. Gehienez 2 x 1 metro izango dituzte, zirkunstantzia bereziengatik tamaina handiagoa baimendu daitekeenean izan ezik.

Salmenta ibiltarirako postuak ezin izango dira eraikinen, eta merkataritza eta industria establezimenduen sarreretan edo sarrera horiek edo oinezkoen joan-etorriak eragozten dituzten lekuetan jarri, ez eta erakusleihoen edo erakusketen aurrean, horien ikusmena eragozten dutenean.

3. Gure herrian dugun tradizioari jarraiki, salbuespen gisa eta aldi baterako, udalak beharreko baimena eman ondoren, Udalak zehaztutako leku eta kopuruan, eta Udalak zehaztutako baldintzetan, honako hauen salmenta baimendu ahal izango da:

— Baserriko produktuak eta artisautzakoak aldikako edo ohiz kanpoko ferietan.

— Gaztainak neguak; sardina edo haragi erreak, txistorra, taloak, erroskilak, txurroak, ogitartekoak, edariak eta abar, udalerrian behar bezala baimenduta antolatzen diren jaietan.

— Loreen salmenta Santu Guztien eguna dela eta.

— Pinuak eta antzekoak Gabonetan.

— Liburuak Liburuaren Eguna dela eta.

— Kultur eta gastronomia izaerako edo gizarte intereseko azoketan egiten diren artisau-lanak eta bertako gastronomia produktuak.

— Beste hainbat produktu herriko jaietan, auzoetako jaietan eta garrantzi berezia duten ekitaldietan.

3. Los Agentes de la Autoridad informarán a las personas que lo necesiten de la existencia de los servicios sociales, municipales o de otras entidades, a fin de que puedan solicitar el socorro y ayuda necesarios.

4. Los servicios municipales de Bienestar Social, atenderán a las personas que, vista su situación, no dispongan de refugio para pernoctar, especialmente durante la época invernal.

*Artículo 17. Venta ambulante.*

1. Se prohíbe la venta ambulante de cualquier producto en la vía pública o en establecimientos, a excepción de los supuestos regulados expresamente en la presente ordenanza que además deberá contar con la debida autorización municipal.

Se considerará venta ambulante, la que se realiza por comerciantes fuera de un establecimiento comercial permanente en espacios libres y zonas verdes o en la vía pública, en lugares y fechas variables.

Como excepción al principio general de prohibición de venta ambulante, y sin perjuicio de las excepciones contempladas en la presente Ordenanza, el Ayuntamiento podrá autorizar esta modalidad de venta mediante la celebración de convenios con instituciones no gubernamentales que, constituidas al amparo de la legislación vigente, persigan fines de interés social, teniendo en cuenta las prohibiciones que las normas establecen sobre determinadas materias o productos.

No podrá concederse autorización para la venta ambulante de aquellos productos cuya normativa reguladora así lo prohíba.

2. La venta ambulante se realizará en puestos o instalaciones desmontables que sólo podrán instalarse en el lugar o lugares que especifique la correspondiente autorización, de hasta 2 x 1 metros, salvo en los casos en que por circunstancias especiales se pueda autorizar de mayor tamaño.

Los puestos de venta ambulante no podrán situarse en accesos a edificios, a establecimientos comerciales e industriales, o en lugares que dificulten tales accesos o la circulación peatonal, ni delante de sus escaparates o exposiciones cuando dificulten la visión de los mismos.

3. Atendiendo a la tradición que existe en nuestra ciudad, con excepción y temporalmente, previa autorización municipal, en lugares y número determinado por el Ayuntamiento y bajo las condiciones que determine reglamentariamente el mismo, podrá autorizarse la venta de:

— Productos del caserío y artesanales en las ferias periódicas o extraordinarias.

— Castañas en invierno, sardinas asadas, carne asada, chistorra, talos, rosquillas, churros, bocadillos, bebidas, etc. con motivo de las fiestas que, debidamente autorizadas, se organicen en el municipio.

— La venta de flores con motivo de la festividad de Todos los Santos.

— De pinos y similares en Navidad.

— De libros con motivo de la celebración del Día del Libro.

— De productos de artesanía y gastronomía regional que se realicen al amparo de ferias de carácter cultural, gastronómico o interés social.

— De otros productos, con motivo de fiestas patronales, de barrios o en eventos de especial trascendencia.

II. TITULUA

BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

I. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA ERABILERA ARRUNTAGATIK

I. ATALA. Bide publikoaren garbiketari buruzkoa, herritarren erabilera komun orokorraren ondorioz

*18. artikulua. Udalaren betebeharra.*

Herriko espazio publikoak garbi eta osasungarri mantentzeko erantzukizuna dute udal zerbitzuek. Zeregin horretarako, Udalak dagokion zerbitzu publikoa emango du beharreko intentsitatez, eta dagozkion erreparo eta zaintza lanak egingo ditu.

*19. artikulua. Herritarren betebeharrak eta laguntzak.*

1. Herritar guztiek dute, oro har herria, eta bereziki espazio publikoak, garbi mantentzeko betebeharra.

2. Elurra eginez gero, hiriko finken jabeek, publikoak nahiz pribatuak izan, espaloietatik elurra eta izotza kentzen lagunduko dute, ura erabili gabe, fatxadari dagokion luzeran eta 1,50 metroko zabaleran gutxienez, espaloiaren zabalera txikiagoa denean izan ezik; elurra espaloiaren ertzean utziko dute, zuhaitzak ukitu gabe eta hustubideei edo estoldei trabarik egin gabe.

3. Udal zerbitzuek eta Udaltzainek, garbiketaren alorrean hiritarrek dituzten obligazioak betetzen dituztela ziurtatuko dute uneoro, eginiko okerra berehala konpontzeko eskatuz, eta horrez gainera, dagokion salaketa egin ahal izango dute.

*20. artikulua. Berariazko debekuak.*

1. Debekatuta dago bide publikoa zikin dezakeen edozein jarduera egitea, esate baterako:

— Bide publikoan edo beste edozein lekutan, hondakinak bide edo ubide publikora isurtzen badira, ibilgailuak garbitu edo konpontzea.

— Bide publikoan kaka eta pixa egitea eta listua botatzea.

— Balkoi, terraza edo leihoetatik edozein eratako hondakinak botatzea bide publikora, espazio pribatuetara edo espazio komunitarioetara.

2. Panfletoak botatzen badira, banaketa horrek ukituriko herri espazioa garbitzeaz arduratuko dira udal zerbitzuak, eta horren erantzuleei leporatuko zaie emaniko zerbitzu berezien kostua, dagozkion isunak jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

3. Fatxadetako lorontziak edo landareak gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arte soilik ureztatu ahal izango dira. Kalte eta eragozpenik ez sortzeko moduan egingo dira lan horiek.

Bide publikoan hondakinak manipulatu edo botatzeari buruzko beste debekuei, eta animalia hilak abandonatzeari dagokienean, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatean Hiri hondakinen Kudeaketa Arautzen duen Ordenantzak xedaturikoa beteko da (22, 25 eta 32 art.).

TITULO II

LIMPIEZA DE LA VIA PUBLICA

CAPITULO I. LIMPIEZA DE LA VIA PUBLICA POR SU USO NORMAL

SECCION I. De la limpieza de la vía pública como consecuencia del uso común general de los ciudadanos

*Artículo 18. Obligación municipal.*

Los servicios municipales tienen la responsabilidad de mantener los espacios públicos del municipio en condiciones de limpieza y salubridad. A este efecto, el Ayuntamiento prestará el servicio público correspondiente con la intensidad necesaria, y ejercerá las facultades de vigilancia y policía que le corresponden.

*Artículo 19. Obligaciones y colaboraciones de los ciudadanos.*

1. Todo ciudadano está obligado a mantener limpio el municipio en general y sus espacios públicos en particular.

2. En caso de nevadas, los propietarios de fincas urbanas, tanto públicas como privadas, deberán colaborar a limpiar de nieve y hielo las aceras, sin utilizar agua, en la longitud correspondiente a la fachada y en la anchura mínima de 1,50 metros, salvo cuando la anchura de la acera sea menor, depositando la nieve a lo largo del borde de la acera, sin afectar a los árboles ni obstaculizar los sumideros o alcantarillas.

3. Los servicios municipales y los agentes de la Policía Local deben velar en todo momento por el cumplimiento de las obligaciones de los ciudadanos en materia de limpieza, requiriendo la reparación inmediata de la afección causada, sin perjuicio de cursar la denuncia que corresponda.

*Artículo 20. Prohibiciones específicas.*

1. Se prohíbe realizar cualquier operación que pueda ensuciar la vía pública, como, por ejemplo:

— Lavar, limpiar o reparar vehículos en la vía pública o en cualquier lugar desde el que los residuos puedan verter a la vía o cauce público.

— Defecar, orinar y escupir en la vía pública.

— Verter cualquier tipo de residuo desde balcones, terrazas o ventanas a la vía pública, espacios privados o comunitarios.

2. En caso de arrojar octavillas, los servicios municipales correspondientes procederán a limpiar el espacio urbano afectado por dicha distribución, imputando a los responsables el coste de los servicios extraordinarios prestados, sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

3. El riego de tiestos, macetas o plantas en fachadas, sólo podrá realizarse entre las 22:00 y las 8:00 horas. Estas operaciones se realizarán de forma que no causen daño ni molestias.

En lo que se refiere a otras prohibiciones relativas a la manipulación y depósito en la vía pública de desechos o residuos, así como al abandono de animales muertos, se estará a lo que determina la Ordenanza municipal sobre recogida y tratamiento de desechos y residuos sólidos.

*21. artikulua. Hondakinak botatzea.*

1. Hondakinak honako modu honetan aterako dira.

Zaborra (poltsa itxian), paper-kartoia, ontziak eta beira bakoitza bere edukiontzian eta inguruak zikindu gabe. Altzariak eta tresneria edukiontziaren ondoan, haren kontra jarri gabe, Oiartzungo udalerrian hondakin solidoak bildu eta tratatzeari buruzko ordenantzak azaltzen duen egun eta orduetan.

Komertzioetako paper-kartoia, tolestua eta lotua, dagokion edukiontziaren ondoan.

2. Debekatuta dago zabor poltsetan eta bide publikoan dauden edukiontzietan jarritako hondakinak miatzea eta ateratzea, obra hondakinak jasotzeko edukiontziak barne.

*22. artikulua. Paperontzien erabilera.*

1. Bolumen txikiko hondakin solidoak, esate baterako, zigarro-mutur itzaliak, azalak, txikleak, paperak, poltsak, bildukiak eta antzekoak, paperontzietan bota behar dira, material birziklagarriak direnean izan ezik, kasu horretan bide publikoan jarritako gaikako bilketarako edukiontziak erabili behar baitira.

Zakar-poltsak ez dira paperontzietan sartuko.

2. Debekatuta dago hondakin solido piztuak eta beste edozein materia piztu paperontzietan uztea.

II. ATALA. Merkataritza eta industri jarduerei loturiko garbiketari buruzkoa

*23. artikulua. Inguruko eremuaren garbiketa.*

Merkataritza edo industri jarduera batek bere inguruetan, edo baimendutako espazioan terrazen kasuan, zikinkeria sortu ohi badu, establezimenduko titularrak garbi eduki beharko du ukituriko bide publikoaren zatia, dagozkien lizentziei aplikatu beharreko erregimenetik etor daitezkeen neurri zuzentzaile eta gainerako betebeharrei kalterik egin gabe.

*24. artikulua. Establezimenduak.*

Erakusleiho, establezimendu, atari, salmenta puntu eta antzekoen garbiketa arreta handiz egingo da bide publikoa ez zikintzeko, eta bertan dabiltzanei eragozpenik ez sortzeko orduetan egingo da.

Garbiketa horretatik etorritako hondakinak ezin izango dira bide publikora isuri edo bota, eta dagokien edukiontzian botako dira. Likidoak badira, estolderian hurbilen dagoen hustubidera isuriko dira, baldin eta hondakin horiek hidrokarburo, disolbatzaile, azido, lixiba, detergente kontzentratu eta ur inguru hartzailearen gaitasun biologikoa eta ezaugarriak alda ditzaketen beste produkturik ez badute. Ingurumenarentzat kaltegarriak izan daitezkeen substantziak San Markos Mankomunitateak baimendutako leku baten jarri beharko dira edo, enpresen kasuan, baimendutako kudeatzaile bidez erretiratuak.

*25. artikulua. Olanak eta pertsianak.*

Beheko solairuko lokaletako olanak eta pertsianak kontserbazio eta garbiketa egoera onean mantenduko dira, eta berritu egingo dira kanpoko itxurak edota hondatze egoerak eskatzen duenean.

*26. artikulua. Errotuluak, plakak eta gainerako bereizgarriak.*

Edozein errotulu, plaka edo bereizgarri bide publiko aldera jartzeko, beharreko lizentzia lortu beharko da. Horiek garbi edukiko dira eta hondatuak aldatu egingo dira.

*Artículo 21. Depósito de residuos.*

1. Los residuos deberán depositarse de la siguiente manera:

La basura (en bolsa cerrada), el papel-cartón, los envases y el vidrio cada uno dentro de su contenedor respectivo y sin ensuciar los alrededores. Los muebles y enseres junto a contenedor, sin apoyarlos en él, los días y horas señalados en la Ordenanza Municipal sobre recogida y tratamiento de desechos y residuos sólidos.

El papel-cartón de los comercios plegado y atado, junto al contenedor correspondiente.

2. Queda prohibido rebuscar y extraer residuos depositados en las bolsas de basura y en los contenedores instalados en la vía pública, incluidos los destinados a recogida de desechos de obras.

*Artículo 22. Uso de las papeleras.*

1. Los residuos sólidos de pequeño volumen, tales como colillas apagadas, cáscaras, chicles, papeles, bolsas, envoltorios y similares, deben depositarse en las papeleras, excepto si se trata de materiales reciclables, en cuyo caso se utilizarán los contenedores de recogida selectiva instalados en la vía pública.

No deben ser depositadas bolsas de basura.

2. Se prohíbe dejar en las papeleras residuos sólidos encendidos y cualquier otra materia encendida.

SECCION II. De la limpieza en relación con actividades comerciales e industriales

*Artículo 23. Limpieza de la zona próxima.*

Cuando una actividad comercial o industrial genere suciedad frecuente en sus proximidades, o en el espacio autorizado en caso de terrazas, el titular del establecimiento deberá mantener limpia la parte de vía pública afectada, sin perjuicio de las medidas correctoras y demás obligaciones derivadas del régimen aplicable a las preceptivas licencias.

*Artículo 24. Establecimientos.*

La limpieza de escaparates, establecimientos, portales, puntos de venta y similares, se hará con precaución para no ensuciar la vía pública, y se realizará en un horario que no cause molestias a los viandantes.

Los desechos derivados de dicha limpieza nunca deberán ser vertidos sobre la vía pública debiendo, en todo caso, verterlos en el contenedor correspondiente o, si son líquidos, en el sumidero más próximo del alcantarillado siempre y cuando dichos restos no incluyan hidrocarburos, disolventes, ácidos, lejías, detergentes concentrados u otros productos que puedan alterar la capacidad biológica y características del medio acuático receptor. Este tipo de sustancias nocivas para el medio ambiente deberán ser depositadas en lugar autorizado por la Mancomunidad de San Marcos o, en el caso de empresas, retirados mediante gestor autorizado.

*Artículo 25. Toldos y persianas.*

Deberán mantenerse en buen estado de conservación y limpieza los toldos y persianas de los locales de planta baja y se repondrán cuando lo requiera su aspecto externo o su estado de deterioro.

*Artículo 26. Rótulos, placas y demás distintivos.*

Cualquier rótulo, placa y distintivo hacia la vía pública está sujeto a licencia municipal. Habrán de mantenerse limpios y deberán reponerse los deteriorados.

Norabideen seinaleei dagokienean (trafikokoak, monumentuenak eta intereseko lekuenak, udal zerbitzuenak eta abar alde batera utzita), izaera publikoa edo erabilera publikoa duten zerbitzuei dagozkienak soilik jarri ahal izango dira (osasun establezimenduak, hotelak, parkingak, posta, eta abar), udalaren baimena lortu ondoren eta hartan zehazten diren kopuruak eta irizpideak kontuan harturik.

*27. artikulua. Pankartak, kartelak, banderatxoak eta itsasgarriak.*

Debekatuta dago horrelakoak bide publikoan jartzea egitura elementu, galtzada, espaloi, herri altzari, horma eta paretetan, aurrez udal baimena lortu gabe. Horrez gainera, jabearen baimena ere eduki beharko da beharbada.

*28. artikulua. Isurtzeak.*

Generoa soltean, edo edozein materia ontziratu gabe garraiatzen duten ibilgailuak bide publikora isurketarik ez egiteko moduan kargatu eta ekipatuko dira.

*29. artikulua. Karga eta deskarga.*

1. Edozein ibilgailuren karga eta deskargak egiterakoan, zikindutako espaloi eta galtzadak berehala garbituko dira lan horiek amaitu bezain laster.

2. Garbiketa horiek egiteko obligazioa dute (28 eta 29 art.), ibilgailuen jabeek eta, subsidiarioki, karga edo deskarga egin den establezimendu edo finkaren titularrek.

Arau orokor gisa, titularrek ez badute egiten, udal zerbitzuek egingo dute beharreko garbiketa, baina gastuak besteek ordainduko dituzte.

III. ATALA. Animaliak eraman edo edukitzeari loturiko garbiketari buruzkoa

*30. artikulua. Animaliekiko tratua. Gorotzak.*

1. Herritarrek behar bezala zainduko dituzte etxe animaliak, eta bereziki, debekatuta dago animalia horiek kalean abandonatzea.

2. Debekatuta dago edozein animaliak parke, pasealeku, lorategi edo bide publikoko beste edozein lekutan kaka egitea. Animalia horiek daramatzaten pertsonek ez diete utziko leku horietan kaka egiten.

3. Ezin izan bada gorotzak bide publikoan egitea ekidin, animaliaren jabeak edo animalia hori daraman pertsonak berehala jaso beharko ditu. Arau hori ez bada betetzen, animaliaren jabea izango da erantzulea eta, subsidiarioki, une horretan daraman pertsona. Bietako bat ere ez bada azaltzen, dagokion udal zerbitzuak erretiratu egingo du animalia.

*31. artikulua. Animaliak eramatea.*

1. Animaliak ezin izango dira lorategietan eta parterreetan ibili, espres baimendutako parkeetan ibili ahal izango dira behar bezala kontrolatuak.

2. Indarrean dagoen Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantza beteko da uneoro.

Respecto a señales direccionales (dejando al margen las de tráfico, monumentos o lugares de interés, servicios municipales, etc.), sólo se podrán colocar las correspondientes a servicios de carácter público o de utilidad pública (establecimientos sanitarios, hoteles, parking, correos, etc.), previa autorización municipal y en la cantidad y criterios que en ella se indiquen.

*Artículo 27. Pancartas, carteles, banderolas y adhesivos.*

Se prohíbe su instalación en la vía pública sobre elementos estructurales, calzadas, aceras, mobiliario urbano, muros y paredes, sin la previa autorización municipal y sin perjuicio de la necesidad de contar con el consentimiento del propietario.

*Artículo 28. Derramamiento.*

Los vehículos que transporten género a granel, o cualquier materia sin envasar, han de ir cargados y equipados de modo que se impidan derrames sobre la vía pública.

*Artículo 29. Carga y descarga.*

1. En caso de operaciones de carga y descarga de cualquier vehículo, la limpieza de las aceras y calzadas que hubieran sido ensuciadas se realizará inmediatamente después de concluir esas tareas.

2. Están obligados a realizar dichas limpiezas (arts. 28 y 29), los dueños de los vehículos y, subsidiariamente, los titulares de los establecimientos o fincas en que haya sido efectuada la carga o descarga.

Como normal general, en el caso de que los titulares no lo hicieran, los servicios municipales procederán a efectuar la limpieza que corresponda, repercutiendo los costes.

SECCION III. De la limpieza en relación con la conducción o tenencia de animales

*Artículo 30. Trato hacia los animales. Excrementos.*

1. Los ciudadanos deberán atender convenientemente a los animales domésticos y, en particular, queda prohibido el abandono de los mismos.

2. Se prohíbe que cualquier animal deposite sus deyecciones en parques, paseos, jardines o cualquier otro lugar de la vía pública. Las personas que los conduzcan impedirán que evacuen en ella sus excrementos.

3. En caso de no haber podido evitar que los excrementos se depositen en la vía pública, el propietario del animal o la persona que lo conduzca deberá inmediatamente recogerlos. Del incumplimiento será responsable el propietario del animal y, subsidiariamente, la persona que lo conduzca. Si no apareciera ninguno de los dos, será retirado el animal por el servicio municipal correspondiente.

*Artículo 31. Conducción de animales.*

1. Los animales no podrán invadir los jardines y parterres, pudiendo circular, debidamente controlados, por los parques donde expresamente se autorice.

2. Se cumplirá en todo momento con la Ordenanza Municipal para la Protección y Tenencia de Animales en vigor.

## II. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETARI BURUZKOA, ERABILERA KOMUN BEREZIAREN, ERABILERA PRIBATIBOAREN ETA EKITALDI PUBLIKOEN ONDORIOZ

*32. artikulua. Erabilera berezi edo pribatiboak ukituriko eremuaren garbiketa.*

1. Erabilera komun berezi eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabilera horien baimena duten edo esleipendunak diren pertsona fisiko edo juridikoen erantzukizuna izango da. Sortzen dituzten hondakinak bota edo edukitzeko ontzi homologatuak jartzeko eskatu ahal izango die Udalak, eta ontzi horiek ere garbitu egin beharko dituzte.

2. Terraza eta mahaien garbiketari dagokionean, titularrek egin beharko dute ordubeteko epean, establezimendua ixten den unetik aurrera kontatuta. Dena dela, egun osoan zehar garbi eduki beharko dira, garbiketa eta higiene baldintza egokietan, eta horretarako, erratza pasako da eta garbiketa lanak egingo dira aldian behin.

3. Terrazen kudeaketa zabor ahalik eta gutxien sortzeko moduan egingo da, behar-beharrekoak ez diren bildukin, apaingarri edo botatzeko den beste edozein elementu saihestuz.

*33. artikulua. Ekitaldi publikoak egitea.*

1. Jabetza publikoko espazioetan ekitaldi bat antolatzen duten antolatzaile pribatuak izango dira ospakizun horretatik etorritako zikinkeriaren erantzuleak.

2. Herriko garbitasunaren ondorioetarako, ekitaldi publikoen lekua, ibilbidea eta ordutegia Udalari jakinarazteko obligazioa dute antolatzaileek. Udalak fidantza bat jartzeko eskatu ahal izango die eragin ditzaketen garbiketa lan berezien arabera. Erabilitako espazio librea garbiketa baldintza egokietan baldin badago, itzuli egingo da fidantza hori. Bestela, hartatik kenduko da egin beharreko garbiketa lan berezi horien kostua.

